

GANBARATIK

Kalitate kontuak

NEKANE AMIANO

Produktibitatea eta kalitatea jarri dizkigute modan. Atzo eguerdian ETB-2ren bidez (azkenaldion kirola ez gainontzeko ekitaldi garrantzitsu gehienak gaztelarazko katearen bidez ari gara hartzen euskarazko katearen 'kalitatearen' kalterako), Kalitatearen Sustapenareko Euskal Fundazioak antolatuta, Volvo enpresako Presidentearen hitzaldi interesgarria jaso genuen. Oso interesgarria. Erabat ados egon edo ez beste kontu bat da.

Ingeles ez eman zuen hitzaldia hizlariak eta ETB-2k interpretariaren zuzenezko gaztelarazko bertsioa guri. Txalo erdia ETBri. Osoa hitzaldia euskaraz ere emandakoa. Hitzaldia bukatutakoan Ardanza EAEko lehendakariak itxi zuen ekitaldia euskaraz eta gaztelaraz egin zuen hitzaldiarekin. Azalpen zaila duen irizpideari jarraituz ETBk ez zuen lehendakariaren euskarazko diskurtsoaren gaztelarazko itzulpenik eman. Gezurretan ariko nintzateke argudiatuko banu ETBri berdin diola lehendakariaren euskarazko diskurtsoak. Beraz, beste ate batean jo behar du.

Telebistan ikusitakoaren arabera, Ardanza euskaraz ari zela askok kenduta zeuzkaten aurikularrak. Bietako bat, edo antolatzaileek ez zuten euskara-gaztelera interpretaririk aurrikusi —aurpegia behar da kalitatea gai nagusia duen ekitaldi batean horrelakorik egiteko— edo bestela, han bildutako askori gutxi axola lehendakariaren euskarazko hitzek —are okerragoa—. Gertuegi daude, batzuen hiztegi pertsonalean, kalitatea eta karitatea.

Josu Arenaza: «Ideologia ezberdinak izan arren, euskarak batzen gintuen»


GOIZALDE LANDABASO / BILBO

Josu Arenaza euskaltzale ezaguna da Bilbon. Orain hogeita bost bat urte, «euskararen erdi-isileko munda, horretan murgilduta geundela», sortu zuten Begoñazpi Ikastola. «Sasoi hartan euskarazko klaseak etxeetan ematen ziren, eta horrenbeste pisutan sakabanaturik egon beharrean, leku batean batzea egokiagoa izango zela pentsatu genuen». Baina lekua lortzea ez zen batere erraza izan; garai hartan Añoberos gotzaina zen eta berak ikastola sortzeko bidea zabaldu zuen». Añoberosek Begoñazpiko komentua utzi zien, eta hortxe izan ziren Begoñazpi Ikastolaren hastapenak.

Josu Arenazak ikastolen hasierak mugimendu bat baino gehiago zirela azaldu du. «Euskal kulturaren inguruko arlo ezberdinak zeuden eta horretan ikastolak adar bat besterik ez ziren». Euskal kulturaren alde ezer egitea ez zen lan makala eta sarritan ezkutuko bideetara jo beharra zegoen. «'Agur' izeneko aldizkaria sortu genuen. Euskara hutsen kaleratzeak gauzak ez zituen erraztu, eta Retanak aldizkari bat plazaratzeko zuen baimena erabiliz argitaratu ahal izan genuen 'Agur'».

Sasoi haietan denetarik egiten omen zuten euskaltzaleek, «abertzaletasunak bultzatuta egiten genuen». Francoren sasoiak eta gaur egunekoak alderatu nahi izan ditugure solaskideak: «Orduan ideologia ezberdinak egon bazeuden, baina euskarak eta euskal kulturak batzen gintuen».

Ikastolek azken hilabeteotan izandako tira-birez ez daki askorik. «Egun ikastolen mugimendutik na-



XOUSE SIMAL

SOSLAIA

Oporrak Ondarroan, Bakion,...

Josu Arenazak arabarra zuen aita eta bizkaitarra ama, Nabarrizkoa. Bera Bilbon jaio zen: «Lehen Bilbon euskaldun asko zegoen, agian egun baino gehiago. Baina beldurrez, askok galdu egin zuen». Lau seme-alaba ditu eta guztiak ikastolan ibilitakoak. «Orain besterik izango banu, dudarik gabe ikastolara bidaliko nuke». Seme-alabekin sekula ez du erdaraz egin, «ez deust urtetan». Sarritan, Bilbotik irteteko, seme-alabak hartu eta oporretan joaten ziren Ondarroara, Bakiora... herri euskaldunetara.

hiko alderatuta nago, eta azken boladan izandakoak ez ditut behar beste jarraitu. Dena den, jazotakoa penagarria dela uste dut. Ikastolek bat egin behar dute aurrera egiteko». Lehen lan izugarria egiten zutela azaldu digu, «neuk beharra amaitu eta beti zegoen batzarren bat».

Josu Arenaza euskal kulturaren inguruan dabilen gizona bada ere, bere ogibidea bestelakoa da; sendagilea, medikua da. Ikasketak Valladoliden egin zituen, «berton fakultaterik ez zegoen eta». Lagun batek eta biek erabaki zuten medikuntza ikastea. «Batxillergoa amaitu ondoren, ikasketak aukeratu behar gintuen eta Txaber Ariño lagunak eta biok Valladolidera jo genuen».

Asti askorik ez badu ere, duen apurra bere zaletasunetan ematen saiatzen da. «Euskal musika atsegin dut batez ere, osterantzeko musika ere entzuten dut, baina batez ere euskal musika gustatzen zait». Honez gain, Athletic taldearen zalea da; «ez naiz jarraitzaile sutsua, baina nolabait jarraitzen dut». Berrogeita hamar urte egin ditu Athleticeko bazkide: «302. kidea naiz». San Mamesera sarri joaten den arren, gauza batzuk direla edo besteak direla, askotan ezin izan du. «Seme-alabak hazten ari zirelarik, beraiekin egoteagatik ez nintzen joaten. Orain gehitxoago joaten naiz».

Athleticen egungo egoeraz berba egin digu. «Heynkesen joana penagarria izan da, ona izan baita Athleticentzat». Heynkes atsegin zuen. Jokalariez duen iritzia gureganatu du: «Nafarrak oso onak izan dira Athleticentzat, eta bere filosofia ederto barneratu dugu. Larrainzar eta Ziganda atsegin ditut».

LERRU GUTXITAN

Adi merkealdietan

Datorren asteburutik aurrera hasiko da udako merkealdi sasoiak, eta hori dela eta «adi ibiltzeko» deia egin du Espainiako Kontsumitzaileen Elkarteak. Hainbat arrazoiengatik egin zituzten iaz kontsumitzaileek erreklamazioak: merkatariak kreditu txartelak onartu ez zutelako, erositakoak etiketarik ez zuelako edo behin produktua erositako itzultzerik izan ez zutelako.


ONCE

ASTELEHENA

51.697

ASTEARTEA
ASTEAZKENA
OSTEGUNA
OSTIRALA **KUPOITZARRA**

irrimarra



© Jon Zabaleta

❑ VALENTZIAKO CALLESen eta INGURUKO HERRIETAN duela bost egun piztutako sutea atzo kontrolatu zuten «guztiz»; haizea lagun izan du suak eta 4.500 hektarea mendi kiskali du. Hala ere, ondorengo lauzpabost egunetan adi jarraituko dute suhiltzaileek, inon berpiztu ez dadin. Valentziako Generalitateko iturriek jakinarazi zuten, azken sei hilabeteotan ia 390 sute izan dira Komunitatean, garrantzitsuenak Penayolosa, Chulilla eta Calleskoak. Soldadura lan batzuetatik ateratako txinpartak piztu zuen azken sute hau.

❑ 300 KILOTIK GORA HONDAKIN JASO dute dagoeneko 'Yves Rocher Karakorum Garbia' espedizioek. Payu (Pakistan) herritik abiatu eta Himalayako Broad Peak mendiko kanpamendu nagusira heldu dira lehenengo zazpi egunotan eta, harri eta elur artean, paperak, kartoiak, plastikoa eta latak aurkitu dituzte, urtero ibilbidea egiten duten milaka lagunek utziak. Magda Nos Kataluniako mendizalea da espedizio buru.

❑ URETARA BURUZ BEHERA SALTO egiten marka guztiak hautsi nahi izan ditu Errumaniako gazte batek eta 47,5 metroko altueratik egin du jauzi. Kaskorik eta babes-jantzirik ez zeraman eta, uraren kontra 120 kilometro orduko abiadurarekin jo ondoren, parailitiko gelditu da oinetatik. Gainera, Guinness liburuak ez du bere izena jasoko, nazioarteko epailerik ez baitzuen deitu.

❑ BIZI GUZTIRAKO kartzela zigorra ezarri diote Bangkok-eko agintariek iragan martxoan droga trafikoa ari zela atxilotu zuten emakume espainiarri. Kondenatuak, Maria Teresa Santaliestarak, errekurritu egin du sententzia. Bizi guztiko kartzela edo herio zigorra ere ezar diezaietete Thailandian trafikotzaileei.